

EITBren SORRERA LEGEA

Parlamentu Ponentzia

EITBko sindikatuen gogoeta

2007ko azaroaren 22a

Egitura beharrak

- Zerbitzu Publikoa izanik, EITBren menpeko enpresak publikoak izan behar dira
- EITBren funtzionamendu egokirako beharrezkoa den egiturako langilegoa (plantila estrukturala) ondo finkatu behar da, langileen eta egitura beraren egonkortasuna, pluraltasuna eta kalitatezko zerbitzua bermatzeko.
 - ETB 3, ETB4: 2008an eta 2009an martxan jarriko badira ere, Langile Batzordeak ez du zuzendaritzaren aldetik informaziorik. Pentsaz edo parlamentuko ekimenen bidez enteratzen gara.
 - EITBNeten zerbitzuak diren EITB.COM eta EITB24.COM dagoeneko egiturakoak izan beharko ziren. Nahiko urte daramate martxan, egonkortu dira dagoeneko eta dinamika areagotuko zaie datozen urteetan, teknologia berriei lotuta dauden neurrian.
 - EAZ-CAU (EITBko sistema informatikoen Erabiltzailearen Arreta Zerbitzua) berdin, gero eta karga gehiago edukiko dute gainera, EITBren komunikabideen joera gero eta informatikoagoa izango baita.
 - Negozio Planek sindikatuoi sortzen diguten kezka:
 - Masa Salarialaren portzentaia gastu orokorrekiko jaitsi
 - Plantilaren hazkundea mugatu
- Lan baldintza egokiek produktuaren eta langileen bizi kalitatearen alde jotzen dute.
 - Denbora optimiza daiteke, neurri bateraino. Hortik aurrera "lan lasterra, lan alferra" bihurtzen da.
 - Prekarietatea areagotzen ari da (bekadunak langileak ordezkatzeko, behin-behinekoei ezarritako kargak eta ardurak, azpikontratatuaren lan baldintzak, ordutegi malgutasunak...)
 - Prestakuntza arazoak daude, ETB Bilbora eramateko moduagatik nabarmen antzematen dena etxeetan. Inprobisazio maila altua egon da, eta oraindik akats nabarmenak antzematen dira emisioan.
- EITBNet egiturarik gabe sortu zen, duela bost urte, eta hala jarraitzen du.
 - Kontratu zuzena 7 buruk dute eta langileak 40-50 bat izango dira, kontratatakoak. 2006an parlamentu batzordeari deialdi publikoa egingo zela aurreratu zuen Ortuzarrek, 20 langile zituena onartuz, baina ez da egia. Oraindik ez da lanpostu deialdi publiko bat ere egin, eta ez da aurreikusten. Aurrekontuetan ez dira ustezko 20 langile horiek egiturakoak bezala hartzen.
 - EITBko kontratu eskeintza bat egin berri du: lizentziatua, euskara eta frantses filologia eskakizunekin 1.100€ eskaini.
 - Kontratetakoek ez dute lan hitzarmen propiorik (bizkaiko bulegoetako hitzarmena), praktikak edo obra kontratuak, asteburu edo gaueko osagarririk ez, hilean 1000-1200€ soldata garbia (ETBko kategoria bereko langile baten soldata gordinaren erdia).

- EITBren egitura hustu
 - Orain arte EITBk berak zuzenki kudeatzen zuen publizitatea espreski sortutako enpresa batek eramaten du. EITBkoa izan den arduraduna enpresa berriko arduraduna da: Expressive (kapitalaren 2/3ak EITBrenak).

Kontratak

- EITBk sektorea sustatu baino, lotu besterik ez du egin
 - Esklusibotasun kontratuak sinatzen dira, EITBekin soilik lan egiteko, merkatua mugatuz.
 - Ad hoc sortutako enpresak:
 - VILAU: EITBNet-entzat lan egiten du. Kapitalaren erdia eta Adm. Kontseiluaren kontrola EITBrena.
 - LANBIDEO: Unitate Mugikorren zerbitzu bat externalizatzeko sortu zen, esklusibotasun klausularekin.
 - MIXER: Bikoizketa zerbitzua, lan baldintzak direla eta kalitate jaitsiera oso nabarmena delarik.
- Kontratetako lan baldintzak => Langilearen bizitza eta EITBren produktuaren kalitatearen kaltean
 - Soldatak, ordutegiak, kargak...
 - Lizentziaturak eskatzen dira kualifikatu gabeko kontratuak egiteko.
 - Oso bokazionala den lana izanik (kamera, kazetaritza...) langileak bestelako irtenbide egonkorragoak bilatu behar izaten du (tabernari...). Penagarria eta lotsagarria.
- Merkantilizazioa areagotzen ari da, langile autonomo faltsuen kontratazioen bidez.
- Ekoiztetxeak, euskarazko ekoizpenak egin ezkereratik bat, EITBren menpe daude, ia merkatu osoa hortxe ixten baitaie.

Euskara

- Aurrekontuak ez dira banatuta etortzen, eta azterketak egitea zaildu egiten du. Soilik enpresaka etortzen dira (ETB, EI, RV, EITB, ETBNET), ez produktuka (ETB1, ETB2, ETBSAT, CVASCO – RE,EI,RV,EITB Irratia, EGaztea)
- Sortuko diren ETB 3 eta ETB 4 euskaraz izan beharko lukete. Lehen euskarazko eskaintza vs erdarazkoaren aldea 1/7 bazen, egun askoz handiagoa, eta aurrera begira zer esanik ez.
- Erdara lehenetsita dago
 - Erdarazko kateek euskarazkoekin konpetitzen dute.
 - ETB1eko informatiboei ez zaie ematen ETB2koei ematen zaien garrantzia. Irratietan ez bezala, ETBn erdarazko albistegiei eman behar diete lehentasuna kazetariak. Euskarazkoak prestatzeko denbora gutxiago.
 - Euskadi Irratiari Radio Euskadiri baino baliabide ekonomiko eta tekniko (UMak...) gutxiago ematen zaio.
 - Film eta serieen estreinaldi handiak erdarazko kateetan
 - Parlamentuko egun osoko emanaldiak nagusiki erderaz izanik ETB1en ematen dira.
 - ETB1 haur gazte eta adinekoei zuzendua, jendarteko sektore bat baztertuta gelditzen delarik.
- Langileontzako euskalduntze plana
 - Egoera ezin hobea dago Enpresa Publikoen artean.
 - Laguntza baino, trabak jartzen ditu zuzendaritzak.

Bestelakoak

- Enpresei zuzendutako saio bereziak (Empresa Vasca kasu) enpresariak eta erakundeak goraipatzeko badago ere, langileok ez dugu antzeko baliabiderik, gaiak egonik: Lan osasuna, lan baldintzak, gatazka ugariak...
- Borroka armatuak eta kale borrokei ematen zaien garrantzia eta espazio zabalak ez zaizkie lan istripuei edota emakumeen kontrako biolentziari eskaintzen.
- Erredakzio kontseilua eta Ikusentzunezkoen Kontseilua faltan botatzen dugu.
- Administrazio Kontseiluan EITBko langileen ordezkari baten beharra, informazioa bi norabideetan eta jario handiagokoa izateko.
- Hainbat bazterketa nabarmen: AparthEITB ezker abertzaleari, Europako Itunari EZ plataforma, AHT ez ekimenari boikota...
- 2000-2007 Plan Estrategikoan jasota badago ere, ez zaigu iruditzen Nafarroa, Ipar EH eta diasporari behar bezalako tratamendurik ematen zaionik. EITBk ez du euskaldun guztion herri kohesioaren aldeko ganorazko lanik egiten.